

EUSKADIKO INGURUMEN PROFILA 2015

URA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAHIA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL



EUSKADIKO INGURUMEN PROFILA 2015

URA




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SALA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL



AURKIBIDEA



EUSKADIKO INGURUMEN PROFILA

6. orr.

URAREN KUDEAKETA GAUR EGUN

8. orr.

Ura, babestu beharreko ondarea: Uraren Esparru Zuzentaraua	8
Ura kudeatzeko eskumenak	11
Ura kudeatzeko erronkak	12
Ura kudeatzeko tresnak	14

UR MASEN EGOERAREN EBALUAZIOA

17. orr.

Nola balioztatzen dira?	17
Zein da oraingo egoera?.....	21
Ibaiak	22
Urtegiak	29
Hezeguneak	30
Itsasadarrak	34
Kostaldeko urak.....	42
Lurpeko urak	46
Gune babestuak.....	48

ONDORIOAK ETA ETORKIZUNeko IKUSPUNTUAK

50. orr.

© Ihobe, 2016ko urtarrila

Argitaratzailea:
Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Eusko Jaurlaritza
Urkixo zumarkalea, 36 - 6. solairua, 48011 Bilbo
Tel.: 94 423 07 43
www.ingurumena.eus • www.uragentzia.euskadi.eus • www.ihobe.eus

EDUKIA:
Dokumentu hau Euskal Ur agentzia-URA eta Ondoan SM laguntzarekin egin da.

DISEINUA
Consejeros del Norte Arana Comunicación laguntzarekin.

ARGAZKIA
www.argazki.irekia.euskadi.eus/es. Mikel Arrazola

ITZULPENA:
Traducciones Sergofi

LEGE GORDAILUA:
BI-99-2016



Edizio honetako liburu honetako edukia lizentzia honen pean argitaratu dira: Aitorpena - Ez-komertziala - 3.0 Unported de Creative Commons eratorritako lanik gabe (Informazio gehiago hemen: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Dokumentu osoa % 100ean birziklatutako paperarekin eta erabat klororik gabearrekin egin da.

1

EUSKADIKO INGURUMEN PROFILA 2015. URA



Gizarteak egindako ahaleginari esker, ibaiak, errekaak, lakuak, hezeguneak, itsasoak eta akuiferoak gaur egun ez dira ura mugitzen den leku soiltzat hartzen. Garai batean ibaietan gure hondakinak botatzen ziren begirunerik gabe. Garai hartan ur-guneak oztopo handia ziren askotan, gero eta gehiago neurrigabe kontsumitzeko beharra zuen gizartean hirigintza eta industria garatzeko.

Gaur egun, administrazioek neurriak hartzen dituzte ura erabiltzea eta ur-ingurunea babestea (beharrezkoa da hori egitea) bateratzeko: Behar bezala garbitzen dira eta isuriak kontrolatzen dira, uraren kontsumo jasangarria bultzatzen da, ur-masen ingurumen-hondatzea saihesten da, degradatutako zatiak zaharberitzen dira, eta ibaiak, lakuak, hezeguneak, itsasoak eta akuiferoak egoera onean izatearen garrantziaz kontzientziatzen eta hezten da.

Euskadiko Ingurumen Profila

Euskadiko Ingurumen Profilaren lehen edizioa 2002. urtean izan zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-egoeraren urteko bilakaerari buruzko informazio argia, zehatza eta orokorra ematen digu arlo ezberdinetako adierazle esanguratsuen bidez. Hala nola, klima-aldaketa, airea, ura, lurra, biodibertsitatea, materialen-jarioa eta hondakinak.

2015eko edizio honetan, Europa mailan erabiltzen ari diren filosofiarekin bat eginez, ingurumen-profil monografikoa egitea erabaki da, gizarte guztiarentzako gai nagusi batean oinarrituz: ura.



URA BIZITZAREN OINARRIA DA.

Gizakientzako ezinbesteko baliabidea da, eta ekonomia- eta gizarte-oparotasuna sortu eta mantentzen du.

Ekosistemen eta klimaren erregulazio naturalaren elementu nagusia da.

2

URAREN KUDEAKETA GAUR EGUN

URA, BABESTU BEHARREKO ONDAREA: URAREN ESPARRU ZUZENTARUA (UEZ)

2015ean 15 urte beteko dira Uraren Esparru Zuzentaria indarrean sartu zenetik. Hori Europar Batasuneko ur-ekosistemak babesteko funtsezko gertaera izan zen.

Uraren Esparru Zuzentaria (UEZ) ideia batean oinarritzen du bere garapena: ura ez da merkataritza-ondasuna, babestu eta defendatu beharreko ondarea baizik (eta ondare gisa tratatu behar da). Premisa hori jarraituz, ur kontinentalak, trantsizio urak, kostaldeko urak eta lurpeko urak babesteko marko bat ezartzen du, bai kualitatiboa, bai kuantitatiboa.

Ura kudeatzeko ekintzak batzeko beharrari erantzuteko sortu zen UEZ, eta horrela, Europar Batasuneko urek jasaten duten gero eta presio handigoari aurre egingo zitzaien. Izan ere, kalitate oneko uraren eskaerak gora egiten du etengabe, erabilera guztientzako kantitate nahikoan.




Demarkazio hidrografikoa

UEZk demarkazio hidrografikoa kudeaketa- eta plangintza-unitate gisa ezarri du. Funtsean, unitate hau arroen muga naturalen arabera zehaztu behar da. Horiek nagusitu behar dira beste administrazio-barruti batzuen aurrean.

Ur-masak dira informazio-, jarraipen- eta ebaluazio-unitateak, eta bi taldetan bereizten dira: gainazalekoak eta lurpekoak. Ur-unitate diskretu eta esanguratsuak dira, eta ezaugarri homogeenak dituzte. Izaerari helduta, honako hau da horien sailkapena: naturalak, asko eraldatutakoak eta artifizialak (urtegiak, bideratutako zatiak, portuak...).

Gune babestuak

Horrez gain, UEZk babestutako guneen erregistroa egitera derrigortzen du. Bertan babes berezia jaso behar duten guneak jasotzen dira, berariazko erkidego-arau bati jarraituz, gainazaleko edo lurpeko urak babesteari eta habitatak mantentzeari edo uraren menpeko diren espeziei buruzkoa.



BABESPEKO EREMUAK



Ura hartzeko eremuak gaur eguneko eta etorkizuneko horniketarako.



Osasun- eta ekonomia-intereseko guneak: ur mineralak edo termalak, arrainen babeserako guneak, itsaski-bilketako eta bainua hartzeko guneak.



Ingurumen babes-guneak: Sentikortzat jotako guneak, elikagaiak kutsatuta egon daitezkeelako eta kalteberatzat jotako guneak, nekazal jatorriko nitratoen kutsaduragatik.





Ekologia-intereseko guneak: Natura 2000 Sareko guneak eta ingurumen-intereseko beste gune batzuk.

Uraren Esparru Zuzentarauari eta garatzen duten gainerako arau-dokumentuei esker, guztion ahaleginez, lortzen ari gara ur-masen egoera gero eta hobea izatea. Egoera-adierazleek erakutsitako joerek itxaropenez betetako etorkizuna adierazten digute, nahiz eta oraindik lan asko egin behar den.

UEZren beste bereizgarrietako bat da parte-hartze publikoaren alde egiten duela ezartzeko behar diren prozesu guztietan, eta erabakiak hartzeko ezagutzari eta ikerkuntzari ematen dion garrantzia.

UEZren helburu espezifikoak ur-masen arabera



URA KUDEATZEKO ESKUMENAK




Ur-ingurunea kudeatzea zeharkako kontzeptua da, eta ur-alarreko administrazio eskudunez gain, ingurumenarekin, lurralde antolamenduarekin, hornikuntzarekin eta saneamenduarekin erlazionatutako administrazioek parte hartzen dute.

Administrazio hidraulikoek ur-ekosistemak planifikatzeko eta kudeatzeko eginkizuna dute. Horien artean Ur Agentzia nabarmentzen da. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari atxikitako erakundea da, eta Euskadiko ur-politika egitea du helburu. Ur-ingurunea kudeatzeko jardueran laguntzen dute ere, Estatuko Administrazio Orokorren mendeko erakundeak. Adibidez, Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eta Euskadiko Itsasertz Demarkazioa.

Gure ekintza-alarrean, zeharkakotasun horrek ekartzen duen kudeaketan, funtsezko zeregina dute sektore-eskumen jakinak dituzten administrazioek. Esaterako, ingurumenarekin, lurralde-antolamenduarekin, osasun publikoarekin, arrantzarekin, eta abarrekin erlazionatutakoek (Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien mende daude funtsean); hornikuntza eta saneamendua kudeatzen duten erakundeek eta tokiko administrazioak orokorrean.

UR KUDEAKETAREN ERRONKAK

Azken urteotan, Euskadin ur-masen egoeran aurrerapen nabaria egon da administrazio ezberdinek eta erabiltzaileek burututako lanei esker. Hala eta guztiz ere, aurrerapen nabaria egon arren, oraindik konpondu beharreko arazoak daude. Horren harira, Euskadin ur kudeaketaren inguruan planteatzen diren erroka nagusienak lau epigrafetan banatzen dira:



1 > INGURUMEN-HELBURUAK BETETZEA

Helburuak betetzen direla bermatzeko, beharrezkoa da isuriek sortutako kutsadurari aurre egiteko jardutea eta ingurune-hidrikoaren aldaketa fisikoaren inguruan aritzea.



2 > UR-HORNIDURA EGOKIA ETA ZENTZUZ ERABILTZEA:

Neurriak hartu behar dira hornikuntza-sistemen eraginkortasuna hobetzeko, aurrezteko eta leheneratutako urak erabiltzea bultzatzeko. Horretarako, hain zuzen, honako hau egin behar dugu: sistema jakin batzuetan hiri-hornikuntzaren segurtasuna hobetu, balizko istripu baten aurrean hornikuntza nagusien kalteberatasuna gutxiagotu eta banaketa-sarea hedatu, sistema nagusiez gain, segurtasun gutxiago eta kudeatzeko zailtasun gehiago dituzten sistema txikiak barne hartuz.



3 > MUTURREKO GERTAKARIEKIKO SEGURTASUNA:

Euskadiko historian kalte gehien sortu duen fenomeno naturala uholdea da, eta fenomeno hori behin baino gehiagotan gertatu da. Gaur egun, gure errokarik handiena uholdeak gertatzeko arriskua murriztea da, baita azaleko ur-masen baldintza morfologikoen hobekuntzarekin ahal den bateragarritasunik onena lortzea ere.



4 > EZAGUTZA ETA GOBERNAMENDUA:

Segimendu-jarduerei jarraipena ematea, informazioa biltzea eta ur-masen eta gune babestuen egoera ebaluatzea, ingurumen-helburuak lortzeko. Ur-ingurunea kudeatzeko administrazio publiko ezberdinen eginkizunak batzen dira. Beharrezkoa da, beraz, administrazio publiko horien politika guztien integrazioa optimizatzea eta euren ekimenak koordinatzea, ur-ekosistemak babesteko eta hobetzeko. Gobernamenduari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da Euskadiko lurralde osoan ur-hornidura eta saneamendua kudeatzen duten erakundeak daudela ziurtatzea. Erakunde horiek gaitasun tekniko eta ekonomiko nahikoa izan behar dute, zerbitzu eraginkorra ahalbidetzeko, ur-masen ingurumen-helburuekin eta ura erabiltzeak sortutako kostuak berreskuratzearekin bateragarria dena.


UR KUDEAKETARAKO TRESNAK

Ura kudeatzeari dagozkion helburuak lortzeko eta aurkeztu berri diren erronkei aurre egiteko ezinbesteko bi tresna hartzen dira aintzakotzat: Plangintza Hidrologikoa eta Jabari Publikoaren kudeaketa.

Plangintza Hidrologikoa

Plan Hidrologikoak UEZren printzipioak aplikatzeko nahitaezko ardatzak dira. Arro bakoitzerako edota demarkazio hidrografiko bakoitzerako egiten dira.

Plan horietan azaleko eta lurpeko ur-masen egoeraren diagnostikoa egiten da, baita urarekin erlazioatuta dauden gune babestuena ere; horietako bakoitzarentzako ingurumen-helburuak zehazten dira, eta helburu horiek lortzeko neurrien programa egiten da.




UEZtik eratorritako plan hidrologikoei Uholdeak Kudeatzeko Zuzentarauetatik etorritako plangintza gehitu behar zaie, Euskadin duen garrantziagatik. Plangintza hori Uholde Arriskua Kudeatzeko Planetan gauzatzen da, plan hidrologikoen demarkazio edo arro bereetarako.

Euskadin hiru plangintza-esparru daude, eta Kantauri Ekialdeko (Euskadiko barne-arroak barne hartzen ditu), Kantauri Mendebaldeko eta Ebro Arroko demarkazio hidrografikoei dagozkie.

Bi plan mota hauek, hidrologikoak eta uholde arriskua kudeatzekoak, koordinatuta eta inbrikatuta egon behar dute, helburuak lortzen direla ziurtatzeko.

Plangintza-prozesua 6 urteko zikloetan garatzen da.



Jabari Publikoaren kudeaketa

Azaleko eta lurpeko urek ordeztutako jabari publikoaren kudeaketa egokia beharrezkoa da ur-ingurunearen eta erlazioatutako ekosistemen kontserbaziorako, gune babestuak barne hartuz. Horrek honako eginkizun hauek barne hartzen ditu, beste batzuen artean:

- **Jabari Publiko Hidraulikoan eta Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoan baimen-erregimena.** Horrek bi aprobetxamendurako kontzesio barne hartzen ditu: hondakin-urak isurtzeko baimena eta ur-masen inguruan obrak egiteko baimena.
- **Ikuskaritza eta kontrola.** Beste gai batzuen artean, baimenetan eta kontzesioetan ezarri diren baldintzak bete direla egiaztatzeko aukera ematen du; baita administrazioek esku-hartzea behar duen beste edozein gertakari identifikatzeko ere.
- **Ibilguten mantentze lanak.** Alde batetik, ingurumen-helburuak lortzeko laguntza ematea onartzen du, eta beste aldetik, ibaien goraldien eraginpean dauden lurraldeko leku jakin batzuetan segurtasun hidraulikoa mantentzea.
- **Zehatzeko araubidea.**

Obra hidraulikoak

Bestalde, Plan Hidrologikoan agertzen diren obra hidraulikoen garapena ezinbestekoa da bertan ezarritako helburu ezberdinak bete ahal izateko.

Horien artean honako jarduera hauek aurki ditzazkegu:

- Leheneratze-obrak eta ibaiak hobetzea.
- Presen eta presa txikien iragazkortzea, fauna pasatzeko.
- Saneamendu azpiegitura berriak eta hondakin-uren arazketa.



- Ur-hornidura azpiegitura berriak, emari ekologikoen eta hornidura-bermearen arteko bateragarritasuna hobetzeko, edo hausturen edota istripuen aurrean kalteberatasuna murrizteko.
- Bideratze-obrak, kasu honetan finkatutako hiriguneetan uholdeen arriskua murrizteko soilik, ur-masen eta gune babestuen ingurumen-helburuekin bateragarriak izateko diseinatuta daudenak.
- UEZk aldarrikatzen duenaren arabera, uraren zentzuzko aprobetxamendu jasagarriaren eta egoera onean dauden ur-ekosistemen arteko bateragarritasuna, aurreko zereginak eta beste batzuk gauzatzearen baitan dago.



3

UR-MASEN EGOERAREN EBALUAZIOA

Ur-masen eta gune babestuen egoeraren ebaluazioa plangintza hidrologikoaren eta ur-kudeaketaren elementu nagusia da. Izan ere, neurriak balioztatzeko, ezartzeko edo zuzentzeko beharra xedatzen du, ingurumen-helburuak lortzeko.

Segimendu-programen esparruan balioztatzen diren unitateak ur-masak (azalekoak, ibaiak, hezeguneak, trantsizio urak eta kostaldeko urak, eta lurpekoak) eta gune babestuak (ur-hornidurarako eta bainurako urak) dira.

NOLA BALIOZTATZEN DIRA?

Segimendu-programak

UEZk ezarri du uren egoera jarraitzeko programak garatzea beharrezkoa dela, honako xede hauetarako:

- Ur-masen eta gune babestuen ikuspegi orokor koherente eta osoa lortzea.
- Ingurumen-helburuen betetze-maila xedatzea.
- Plan Hidrologikoan ezarritako neurri-programen eraginkortasun-maila xedatzea.

Administrazio hidraulikoek segimendu-programak kudeatzen dituzte, ur-masen egoera balioztatzeko. Hala ere, beste administrazio batzuek ere informazio garrantzitsua jasotzen dute ur-masen egoerari buruz. Horien artean Foru-Aldundiak eta ur-hornidura eta saneamendua kudeatzen duten

erakundeak nabarmengarriak dira.

Horren harira, hogeitun urtetik gorako azaleko eta lurpeko uren kontrol biologikoa eta kimikoa egiteko kontrol-sortak sortu ditu Ur Agentziak. UEZ onetsi baino lehen, Eusko Jaurlaritzak garrantzia eman zion ur-ingurunearen egoerari buruzko informazioa jasotzeari, haren komunitate biologikoak barne. Ondorioz, jarraipen hau egiten da.

Beste alde batetik, beste administrazio eskudun batzuei dagokie gune babestuen ebaluazioa egitea (osasun-, ingurumen-, ur-agintzaritza, etab.). Bainurako guneetan eta biztanleak hornitzera zuzendutako guneetan kontrol handiagoa egiten da.

Ebaluazio-sistemak

Azaleko uren egoeraren ebaluazioa

Azaleko uren egoerak ardatz gisa hartzen ditu bere egoera ekologikoaren eta kimikoaren balio negatiboenak.


Egoera kimikoa

Azaleko uren egoera kimikoa honela sailkatuko da: “ona” edo “ez du egoera hona lortzen”. Sailkapena Ingurumen-Kalitateko Arau jakin batzuk gainditzearen edo ez betetzearen arabera da.

Egoera ekologikoa

Egoera ekologikoa azaleko urekin lotutako ekosistemen egituraren eta funtzionamenduaren kalitate-adierazpena da. Ekosistema horiek kalitatezko elementu biologikoen, fisiko-kimikoen eta hidromorfologikoen sorta batetik abiatuta balioztatzen dira, erreferentziazko baldintzei jarraituz. Erreferentziazko baldintzekiko kalitatezko elementuen balioen urruntze-mailak egoera ekologikoko sailkapena bost motatan xedatzen du (oso ona, ona, neurritzkoa, eskasa eta txarra).

Artifizialtat edo asko eraldatuta dauden ur-masen kasuan, ahalmen ekologikoaren kontzeptua ezartzen da, egoera ekologikoaren kontzeptua ordezkatzeko. Ur-masa artifizialei eta asko eraldatuta daudenei honako kalitatezko elementuak aplikatu ahal zaizkie: dagokion ur-masa artifizialaren edo asko eraldatuaren antza handiena duen azaleko ur naturalen kategoriari aplikatu ahal zaizkionak. Asko eraldatuta dauden eta ur-artifizialen kasuan honako hau izango da ahalmen ekologikoaren sailkapena: ona, neurritzkoa, eskasa edo txarra.



Kalitate-adierazleak

Jarraian kalitate biologikoko, hidromorfologikoko eta fisiko-kimikoko elementuen adierazleak agertzen dira. Horiek azaleko ur-masen kategoria ezberdinen egoera ekologikoa eta gaur eguneko ebaluazio-sistemen eskuragarritasuna definitzeko esku hartzen dute.

! Gune babestuen erregistroa GeoEuskadin kontsultatu daiteke, Euskadiko Datu Espazialen Egitura (DEA): www.geo.euskadi.eus

BALORAZIO-METODOEN ETA KALITATEZKO ELEMENTUEN ESKURAGARRITASUNA, AZALEKO UR-MASEN EGOERA / AHALMEN EKOLOGIKOA BALIOZTATZEKO EBALUATUAK.

KALITATE-ADIERAZLEAK	IBAIK	LAKUAK	TRANSIZIO URAK	KOSTALDEKO URAK
Fitoplaktona				
Makrofitoak			-	-
Fitobentoak			-	-
Makroalgak	-	-		
Angiospermoak	-	-		
Ornogabe bentonikoak				
Arrainak				-
Fisiko-kimikoak				
Baldintza hidromorfologikoak				

Ez du aplikatzen (-)	Garatu gabeko metodoa
Ez da garrantzitsua	Zati bat garatua duen edo garapen-fasean dagoen metodoa
	Garatutako eta ezarritako metodoa



Lurpeko uren egoeraren ebaluazioa

Lurpeko uren egoera lurpeko ur-masa baten egoeraren adierazpen orokor gisa definitzen da, eta erreferentziatzat hartu du bere egoera kuantitatiboaren eta kimikoaren baliarik negatiboena.

Lurpeko urek egoera ona lortzen dute lurpeko ur-masa baten egoera kuantitatiboa eta kimikoa gutxienez onak direnean.

Lurpeko urek egoera kimiko ona dute: lurpeko ur-masa baten egoera kimikoak honako hauek lortzen dituenenean:

- gazitasun-efekturik edo beste intrusiorik ez egotea.
- aplika daitezkeen kalitatezko arauak ez gainditzea, aplika daitezkeen beste erkidego-arau batzuen ondorioz.
- ez du eragozten azaleko urek ingurumen helburuak lortzea eta ez du kalte esanguratsurik eragiten haiei lotutako lurreko ekosistemetan.
- Ustiapen zuzenek eta zeharkakoek lurpeko ur-masa bati eragiten dioten maila adierazten du lurpeko uren egoera kuantitatiboak.

Gune babestuen egoeraren ebaluazioa

Gune babestuak aukeratzeko, berariazko arau bati jarraitzen zaio, azaleko edo lurpeko urak babesteari buruzkoa, edo ur-ingurunearen menpeko zuzenak diren habitatak edo espezieak kontserbatzeari buruzkoa.

Nazioarteko hitzarmenek eta Europako, estatuetako eta erkidegoetako araudiak gune babestuen kategoría-sorta bat ezartzen dute. Horietako bakoitzak babeserako helburu jakinak, oinarrizko araudia eta informazioa hautatzeari, mugatzeari, jarraitzeari eta hornitzeari dagozkion eskakera dituzte.

Honako babestutako gune-mota hauek bereizten dira: Ur-hornidurarako ura hartzeko gunea, etorkizunean ur-hornidurarako ura biltzekoak, balio ekonomiko nabarmeneko espezie urtarren gunea, aisialdiko jardueretarako guneak (bainurako guneak), natura-gune sentikorrek, habitad edota espezieen babeserako guneak, ur-mineralen eta -termalen babes perimetroak, ibai erretserba naturalak, babes berezikoak eta hezeguneak.

ZEIN DA ORAINGO EGOERA?

Martxan jarri zenetik, URAk kudeatutako ur-masen egoerari jarraipena egiteko programa guztiek emaitzak laburtu dituzte urteko txosten batean, Ur Agentziaren webgunean eskuragarri dagoena (www.uragentzia.eus).

Txosten honetan 2008. urtetik 2014. urtera mugatu da egoera-adierazle bilakaeraren aurkezpena. Orokorrean, ur-masa bakoitzaren adierazle gisa egoera ekologikoa, kimikoa eta egoera orokorra (azken honek aurreko bien emaitzak batzen ditu) aurkezten dira, ur-masa batzuen kasuan izan ezik, ezin baita ur-masen egoera horietako bati buruz aritu, ur-masa horren berariazkotasuna dela eta.





IBAIK

Egoera ekologikoa

Euskadiko ibaien kategoriako ur-masen egoera ekologikoa hobekuntzako joera aurkezten du. Hobekuntza hori bereziki garrantzitsua izan da azkeneko hiru urteetan, izan ere, ingurumen-helburuen lorpen-maila nabarmen handitu da.

Saneamendu- eta arazketa-neurriak ezartzeari eta horien eraginkortasuna hobetzeari esker (nagusiki), azken urteetan Euskadiko ibaien egoera ekologikoa nabarmen hobetzen ari da.


Horrek, Plan Hidrologikoen neurriak gauzatzeko aurreikuspenarekin zein jabari publikoa egoki kudea-tzeko ahalegina mantentzearekin batera, ingurumen-helburuak ezarritako epeetan beteko direla espero izatea egiten du.

Garrantzitsua da ohartzea gaur egun oso ur-masa gutxi daudela egoera txarrean edo eskasean, hau da, ingurumen-helburuak betetzetik urrun.


Baldintza fisiko-kimikoak hobetu dute emaitza-multzoan (baldintza orokorrak). Antza denez, hobekuntza horrek zuzenean kaltetutako adierazle biologiko jakinetan hobekuntza ekarri du (makroornogabeak eta organismo fitobentonikoak).

Arrainen multzoak agertzen du egoerarik txarrean kalitate biologikoko elementuen artean. Horrek islatzen du presio hidromorfologikoa eta baldintzatzaile fisiko-kimiko historikoak daudela, eta horiek arrainen multzoa erabat gara dadila mugatzen dute.

EGOERA EKOLOGIKOAREN BILAKAERA 2008TIK 2014RA BITARTEAN




INGURUMEN-HELBURUEN LORPENAREN BILAKAERA KALITATEZKO ADIERAZLE BAKOITZEKO



Egoera kimikoa

Ibaien kategoriako ur-masen % 80k baino gehiagok egoera kimiko ona agertzen dute.

EGOERA KIMIKOAREN BILAKAERA 2008TIK 2014RA BITARTEAN



Ibaien egoera kimikoak ez du joera hautemangarririk agertzen, eta 2008tik 2014ra bitartean nahiko egonkorra izan da. Hala ere, ohikoa da ibaien kategoriako ur-masen % 80k baino gehiagok egoera kimiko ona izatea.

Ur-masen zati handi batean egoera kimikoaren eboluzioa metalen eta metaloideen ingurukoa izan da.

Kontrolleko programek kontrol-puntu mugatu bat dute lehentasuneko beste sustantzia batzuentzat eta horiek uretan, sedimentuan eta biotan aztertzeko. Presio handien mende dauden edo isuri garrantzitsuak izateko aukera asko dituzten ur-masen kontrol sakona egiten den kasuetan diagnostikatu da nagusiki egoera kimiko ona ez dela lortu.

Kasu gutxi batzuetan ez da balioztatu lehentasuneko sustantzien presentzia, baina presio garrantzitsuak ez daudenez (lehentasuneko sustantzien kontzentrazio handia edo presentzia eragin zezaketen), egoera kimiko onean daudela kontuan hartu behar da.

IKAren (Ingurumen Kalitateko Araua) ez-betetze gehienak biota matrizean (arrainetan) merkurioa dagoelako gertatzen dira. Egoera hori ez da islatzen uraren matrizean, eta aldi berean, merkurioaren kutsaduraren jatorria izan zitezkeen iturri aktiborik ez dago.

Egoera hori orokorra dirudi Europan, eta antza denez, sarritan kutsadura ez puntualari lotuta dago (deposizio atmosferikoa) edo alde zuzeneko egoera historikoetatik eratortzen da.


IKAren gainerako lehentasuneko sustantziei dagokionez hautemandako ez-betetzeek orokorrean izaera puntuala dute, eta ez dute neurri

konpontzaileak behar dituzten kontaminazio-fokuak identifikatzea ahalbidetzen duten egoera kronikorik adierazten.

Egoera osoa

Ingurumen-helburuen betetze-mailak, egoera ona, oso bilakaera ona izan du ibaien kategoriako ur-masetan, eta 2008tik 2014ra bitartean, % 25tik % 60ra pasa da.


EGOERA OSOAREN BILAKAERA 2008TIK 2014RA BITARTEAN



Ibaien kategoriako egoera ona lortzen duen ur-masen kopurua gero eta handiago da, hau da, ingurumen-helburuen lorpen-mailak aldeko joera garbia agertzen du. Joera hori azken urteetan bereziki nabarmendu da eta egoera ekologikoaren joerarekin bat dator. Horrek aldaketa handia ekarri du ibaien kategoriako ur-masen egoeran.

2008an % 25 bakarrik zegoen egoera onean, eta 2014an ia % 60.

Egoera osoak egoera ekologikoa eta egoera kimikoa barne hartzen ditu, eta lehenengoaren (egoera ekologikoaren) emaitzek bereziki baldintzatzen dute adierazle horren bilakaera, izan ere, bigarrena, aipatu bezala, nahiko egonkorra izan da urtetan zehar.





Euskadiko Kantauriko arroetan urtegi guztiek ingurumen-helburuak betetzen dituzte, egoera ekologikoari dagokionez (ahalmen ona).

Isurialde mediterraneoaren kasuan, Uribarri Ganboako urtegiak baino ez ditu ingurumen-helburuak betetzen. Urrunaga eta Albinari dagokienez, ez dira helburuak betetzen, horien egoera fisiko-kimikoaren ondorioz (neurritzkoa, baina helburuak betetzetik gertu).

URTEGIEN EGOERAREN EBALUAZIOA. ISURIALDE MEDITERRANEOA
2015-2021 aldirako Ebroko Plan Hidrologikoaren Proiektuaren arabera

Ur-masen izena	Ahalmena	Egoera fisiko-kimikoa	Egoera
Urrunaga	Oso ona	Neurritzkoa	Ona baino txarrago
Albina	Oso ona	Neurritzkoa	Ona baino txarrago
Uribarri Ganboa	Oso ona	Ona	Ona

URTEGIEN EGOERAREN EBALUAZIOA. KANTOURI ISURIALDEA
2015-2021 aldirako Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren Proiektuaren arabera

Ur-masen izena	Ahalmena	Egoera kimikoa	Egoera
Añarbe urtegia	Ona	Ona	Ona
Lareo	Ona	Ona	Ona
Arriaran urtegia	Ona	Ona	Ona
Ibiur urtegia	Ona	Ona	Ona
Maroño Izoria urtegia	Ona	Ona	Ona
Barrendiola urtegia	Ona	Ona	Ona
Ibaieder urtegia	Ona	Ona	Ona
Urkulu urtegia	Ona	Ona	Ona
Aixola urtegia	Ona	Ona	Ona




HEZEGUNEAK

Egoera ekologikoa

Laku eta hezeguneen kategoriako masen betetze-maila baxua (% 30 inguru) eta ezegonkorra da, baina azken lau urteetan hobekuntza progresibo bat antzeman da.

EGOERA EKOLOGIKOAREN BILAKAERA 2008-2014 DENBORALDIAN



EUSKADIKO LAKU ETA HEZEGUNEEN KATEGORIAKO UR-MASEN EGOERA/AHALMEN EKOLOGIKOAREN BILAKAERA
(OO: Oso ona; O: Ona; Ne: Neurritzkoa; E: Eskasa; T: Txarra)

MASA	07/08	08/09	09/10	10/11	11/12	12/13	13/14
Arreoko lakua	O	O	E	E	E	E	E
Altubeko urmael multzoa - Monrealeko urmaela	O	O	Ne	O	O	Ne	O
El Prao de la Paul-eko urmaela	T	T	E	T	E	T	E
Carralagroño - Laguardiako urmael-multzoa	Ne	Ne	Ne	E	Ne	O	O
Carravalseca urmaela - Laguardiako urmael-multzoa	Ne	Ne	E	T	T	O	O
Musco - Laguardiako urmael-multzoa	T	T	E	E	E	Ne	Ne
Gesaltza Añana	O	OO	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne
Salburu-Arkauteko hezegunea	E	E	T	T	E	E	E
Salburu-Betoñoko hezegunea	E	E	T	E	E	E	E

Ur-masa horien egoera ekologikoak goranzko joera erakusten du 2011tik (egoeraren hobekuntza). Halere, oraindik egoera ez da behar bezalakoa, egoera ekologiko onaren azpiko egoera duten ur-masen nagusitasuna dela eta.


2014an egoerak hobekuntza nabaria izan duela ohartu da, eta (2008tik 2014ra bitartean) kategoria horretako ur-masa guztiek 2014an bakarrik jaso dute egoera txarrean ez daudela adierazten duen kalifikazioa. Aurten, Euskadiko barne-hezeguneetako % 30k baino gehiagok egoera ekologiko ona erakutsi dute. Kategoria honetan agertzen diren bederatzi ur-masetatik, bik egoera ona aurkeztu dute azken urteotan, Carralagroño eta Carravalsecaren, Laguardiako urmael-multzoan daudenak. 2014an, bi ur-masa horiei Altubeko urmael-multzoan dagoen Monrealeko urmaela gehitu zitzaion, eta horrek ere egoera ona erakutsi du.

Egoera txarra erakusten duten masetan, elementu


biologikoen eta hidromorfologikoen baldintzatu dute egoera hori. Kalitate fisiko-kimikoen elementuei dagokienez, mantentzeko dira amaierako egoeran eragin gehien dutenak. Gazitasun- eta azidotze-elementuek, berriz, kalitate oso ona erakusten dute oro har.


Nahiz eta orokortzea zaila den, lakuei eta hezeguneei lotutako presio nagusienak honako hauek izango lirateke: lurzorua nekazaritzarako erabiltzea (mantentzeko ekarpena eta lohiz betetzaren tasa handitzea), ibaiertzak okupatzea, Kubeten drainatzea eta luberritzea, isurketak eta kubetetan harri eta hondakin solidoen osaturiko ekarpenak, abeltzaintza erabilerak, hiri-presioa edota fauna aloktono inbaditzailearen presentzia. Azpimarratu beharra dago ur-masa horiek ez direla oso dinamikoak, beraz, presioen efektuak presioa desagertu baino askoz ere beranduago nabari daitezke, eta ondorioz, birsortzeko gaitasun motela eta mugatua adierazten dute.

EGOERA EKOLOGIKOA LAKUAK ETA HEZEGUNEA, 2008. URTEA



EGOERA EKOLOGIKOA LAKUAK ETA HEZEGUNEA, 2014. URTEA





ITSASADARRAK

Egoera ekologikoa

EAEko itsasadarren masen betetze-maila baxua da 2008-2014 denboraldian zehar.

Euskadiko itsasadarrek presio altua jasaten dute hiri eta industria-erabilerengatik, eta gainera, isurialdeko arroan dagoen egungo egoeraren eragin handia dute.

2008-2014 denboraldian zehar helburuen betetze-maila baxua agertzen dute, eta kasu gehienetan, diagnostiko ezegonkor samarrak adierazten dituzte, helburuen betetzearen eta ez betetzearen artean ibiliz.


Ur-masa talde horren ehuneko handi bat neurritzko egoera edo ahalmenean dagoela kalifikatu da, hau da, planteatutako ingurumen-helburuetatik gertu samar.

Egoera ekologikoak 2010. urtera arte joera positiboa erakusten duen arren, 2011tik aurrera joera hori kontrakoa bihurtzen da, horregatik, 2014an trantsizio ur-masen % 15 baino gutxiago dago egoera ekologiko on batean kalifikatuta.


Helburuak bete ez direla adierazten duten kalitate-elementuak iktiofaunarekin, eta maila baxuagoan, makro-ornogabeekin eta baldintza fisiko-kimiko orokorrekin lotuta daude.

Ibaientzako espero den hobekuntza trantsizio uretan ere isla daiteke geroago, helburuen betetze-maila handituz.

EGOERA EKOLOGIKOAREN BILAKAERA 2008-2014 DENBORALDIAN



ITSASADAREN EGOERA EKOLOGIKOA. 2008. ETA 2014. URTEAK



EUSKADIKO ITSASADARREN EGOERA/AHALMEN EKOLOGIKOAREN BILAKAERA

(OO: Oso ona; O: Ona; Ne: Neurritzkoa; E: Eskasa; T: Txarra)


Egoera ekologikoa	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Bidasoa	Ne	O	O	O	O	E	E
Oiartzun	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne	O
Urumea	E	E	O	O	O	Ne	O
Oria	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne
Urola	Ne	O	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne
Deba	O	O	O	O	Ne	Ne	Ne
Artibai	T	E	E	E	Ne	Ne	E
Lea	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne	T	Ne
Oka barnealdea	E	T	E	E	E	T	E
Oka kanpoaldea	O	Ne	O	Ne	Ne	E	E
Butroe	Ne	O	O	Ne	Ne	Ne	Ne
Nerbioi barnealdea	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne	Ne
Nerbioi kanpoaldea	O	O	O	O	Ne	O	O
Barbadun	T	E	Ne	E	E	T	Ne



Egoera kimikoa

Ibaizabal-itsasadarreko bi masen salbuespenak kenduta, denboraldi osoan egoera kimiko txarra izan dutenak, gainerako egoera kimiko txarretako ebaluazioek izaera puntuala dute, eta kutsatzaile ezberdinak daude tartean.

EGOERA KIMIKOAREN BILAKAERA 2008-2014 DENBORALDIAN



Oro har eta datu-sortarako, trantsizio ur-masen % 75-50ek egoera kimiko on bat dute .

Egoera kimiko ona maiztasun gehiagorekin eskuratzen ez duten masak industrializazio-maila altuetako guneei, meatzaritza guneei, arroetan paper-fabrikak dituztenei (Nerbioi barnealdea-kanpoaldea eta Oiartzun) eta saneamendu osoa ez duten guneei (Oka barnealdea-kanpoaldea) dagozkie.


Modu horretan, aipagarria da Nerbioi barnealdeko eta Nerbioi kanpoaldeko trantsizio ur-masetan antzeman den arazoa, Hexakloroziklohexanoa-ren (HCH) ondorioz. 2011 baino lehen indarrean zegoen araudiaren arabera, egoera kimiko ona zegoen; baina 2011n araudiaren eskakizun-

mailak gora egin zenez, eta aurreko datuetara eraman zenez, egoera kimiko txar bat dagoela zehazten du.

Gainerako kasuetan, egoera kimiko txarren diagnostikoa denboraldiaren bost urteetatik batean baino ez da eman, hau da, ez da problematikan jarraipenik antzeman inongo lehentasunezko berariazko kutsatzaile baten bidez.

Egoera kimiko txar horretan inplikaturik dauden kutsatzaileak honako hauek dira: Hexakloroziklohexanoa, Tributilestainua, kadmioa edo nikela, eta maila baxuagoan, berunezkoa eta Benzo (g,h,i) perilenoa + Indeno (1,2,3-cd) pirenoa.


EUSKADIKO ITSASADARREN EGOERA KIMIKOAREN BILAKAERA (O: Ona; EL: ez du egoera kimiko ona lortu).							
Egoera kimikoa	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Bidasoa	EL	O	O	O	O	O	EL
Oiartzun	O	O	EL	EL	O	O	EL
Urumea	O	EL	O	O	O	O	O
Oria	O	O	O	EL	O	O	O
Urola	O	O	O	O	O	O	EL
Deba	O	O	O	O	O	EL	O
Artibai	O	O	O	O	O	O	EL
Lea	O	O	O	O	EL	O	O
Oka barnealdea	O	O	O	EL	EL	EL	O
Oka kanpoaldea	O	O	EL	O	EL	O	O
Butroe	O	O	O	O	O	O	EL
Nerbioi barnealdea	EL	EL	EL	EL	EL	EL	EL
Nerbioi kanpoaldea	EL	EL	EL	EL	EL	EL	EL
Barbadun	EL	O	O	O	O	O	O



Egoera osoa

Egoera osoak ingurumen-helburuen betetze-maila baxua adierazten du Euskadiko itsasadarretan, eta ez dago joera argirik.

EGOERA OSOAREN BILAKAERA 2008-2014 DENBORALDIAN



Trantsizio urentzako egoera oneko helburuen betetze-maila oso baxua da, eta antza denez, joera negatiboa du azken urteotan.

Egungo egoera txarra da, izan ere, 2013an egoera oneko masarik ez da egon. Kalitateari dagokionez, 2014an berreskuratze arin bat egon da, eta hori, hain zuzen, esanguratsutzat hartuko da baldin eta datozen urteetan segimendu-programek gorako joera hori berresten badute.


Masa mota horien egora isurialdeko arto guztien egoeraren isla denez, ondoriozta daiteke ibaientzako espero den kalitatearen hobekuntzak dagokion islada edukiko duela trantsizio uretan ere.



EUSKADIKO ITSASADARREKO UR-MASEN EGOERAREN BILAKAERA (O: Ona; OT: ona baino txarrago).

Egoera osoa	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Bidasoa	OT	O	O	O	O	OT	OT
Oiartzun	OT	OT	OT	OT	OT	OT	OT
Urumea	OT	OT	O	O	O	OT	O
Oria	OT	OT	OT	OT	OT	OT	OT
Urola	OT	O	OT	OT	OT	OT	OT
Deba	O	O	O	O	OT	OT	OT
Artibai	OT	OT	OT	OT	OT	OT	OT
Lea	OT	OT	OT	OT	OT	OT	OT
Oka barnealdea	OT	OT	OT	OT	OT	OT	OT
Oka kanpoaldea	O	OT	OT	OT	OT	OT	OT
Butroe	OT	O	O	OT	OT	OT	OT
Nerbioi barnealdea	OT	OT	OT	OT	OT	OT	OT
Nerbioi kanpoaldea	OT	OT	OT	OT	OT	OT	OT
Barbadun	OT	OT	OT	OT	OT	OT	OT

ESTUARIOIEN EGOERA OSOA. 2008. ETA 2014. URTEAK





KOSTALDEKO URAK

Egoera ekologikoa


EAEko kostaldeko ur-masen egoera ekologikoa ingurumen-helburuak bete direla erakusten du.

Kostaldeko ur-masek ingurumen-helburuak betetzen dituzte, egoera ekologiko oso ona edo ona duten balorazioekin (Kantabria-Matxitxakok soilik izan zuen 2008an neurritzko egoera).

Egoera ekologikoaren zehaztapenean esku hartzen duten baldintza fisiko-kimiko orokorreari dagokienez, 2008-2014 denboraldian, salbuespen jakin batzuk kenduta, kostaldeko 4 masek kalitatezko ingurumen-helburuak lortu dituzte arazo handiegirik gabe. Horrek esan nahi du dauden saneamendu eta arazketa-neurriak eraginkorrak direla ur-masa horien ur-ekosistemaren egoera ekologikoa babesteko.

Halaber, adierazle biologikoen inguruan lortutako ebaluazioek denboraldi osoan helburuen betetze-maila oso altua izan dela zehaztu dute.


EGOERA EKOLOGIKOAREN BILAKAERA 2008-2014 DENBORALDIAN



EUSKADIKO KOSTALDEKO UR-MASEN EGORA EKOLOGIKOAREN BILAKAERA (OO: Oso ona; O: Ona; Ne: Neurritzkoa; E: Eskasa; T: Txarra).

EGOERA EKOLOGIKOA	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Getaria-Higer	OO	O	OO	O	O	O	OO
Monpas-Pasaia	OO	O	O	O	O	OO	O
Matxitxako-Getaria	O	O	O	O	O	O	O
Kantabria-Matxitxako	Ne	OO	OO	O	O	O	O

KOSTALDEKO UREN EGORA EKOLOGIKOA. 2014. URTEA




Egoera kimikoa

Kostaldeko ur-masak egoera kimiko ona dute orokorrean, nahiz eta bi ur-masetan, Monpas-Pasaian eta Kantabria-Matxitxakon, egoera kaltegarri jakin batzuk antzeman diren.



2008-2014 denboraldian ur-masa horietako egoera kimikoaren urteko emaitza gorabeheratsuen egoerari dagozkion ingurumen-helburuak ez betetzearen ondorio da; benzo(a)pirenoa eta/edo kadmioa Monpas-Pasaia ur-masean 2013an eta Kantabria-Matxitxakon 2011an, kontrol-estazio batean edo batzuetan isladatzearekin, eta ondorioz, masen multzorako izaera arazotsurik gabe. Hortaz, ur-masan modu sistematikoan urteetan zehar errepikatzen ez diren egoera isolatuak dira. Aipatutako denboraldi historikoaren gainerako urteetan ez da arazo esanguratsurik izan.

EGOERA KIMIKOAREN BILAKAERA 2008-2014 DENBORALDIAN



EUSKADIKO KOSTALDEKO UR-MASEN EGOERA KIMIKOAREN BILAKAERA (0: Ona; EL: ez du egoera kimiko ona lortu).

Egoera kimikoa	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Kantabria-Matxitxako	0	0	0	EL	0	0	0
Getaria-Higer	0	0	0	0	0	0	0
Matxitxako-Getaria	0	0	0	0	0	0	0
Monpas-Pasaia	0	0	0	0	0	EL	0

KOSTALDEKO UREN EGORA KIMIKOA. 2014. URTEA





LURPEKO URAK

Egoera kimikoa

Oro har, lurpeko uren egoera kimikoa ona eta egonkorra da, ur-masen ia % 90k egoera kimiko ona du 2008-2015 denboraldian zehar.



EAEko akuifero garrantzitsuenen ezaugarri litologikoen (arrokei erreferentzia eginez) erliebe nabarmena ekartzen dute, hortaz, akuiferoen birkarga-gainazala basoek, basoberritzeek edo belardiek okupatzen dute, nagusiki baso-eta abere-erabilera dutenek.

Lurpeko ur-masen % 90k egoera kimiko ona dute. Hiru ur-masek baino ez dituzte kutsadura kimikoko arazoak.

Gernikak egoera kimiko txarra du, jatorri industrialeko konposatu organiko lurrunkorren ondorioz; eta Gasteizko eta Mirandako alubialek nekazari-jatorriko nitratoen ondorioz.

Gai horri dagokionez, aipatu beharra dago nekazaritza-sektoreak egin duen ahalegina azken urteotan, izan ere, ongarritze-pozesua kudeaketa hobetu denez, izendaturiko kaltebera-eremuetan nitratoek behera egin dute.

LURPEKO UR-MASEN EGOERA KIMIKOAREN BILAKAERA 2008-2014 DENBORALDIAN



GUNE BABESTUAK

Ur-hornidurarako ura hartzeko guneak

Edateko uraren ekoizpena zuzendutako uren kalitateak ez du arazo nabarmenik sortzen kalitate maila handiko kontsumo-ura sortzeko.

Edateko uraren ekoizpena zuzendutako urek ezarritako kalitate-arauak betetzen dituzte, horregatik, egoera kimiko ona dutela kontsideratzen da.

Balio anomaloak antzemateak (bakteriologia, solido esekiak, materia organikoa, burdina, aluminioa eta manganesoa) ez du arazorik suposatzen tratamendu-sistemarako. Modu horretan, bildutako ura ez da orokorrean arazo kontsideratu behar, 140/2003 Errege Dekretuan ezarritako kalitatearen estandarrak betetzen dituen ura lortzeko. Dekretu horretan, hain zuzen, giza kontsumoko uraren kalitatearen osasun irizpideak xedatzen dira.

Zenbait arazok ezaugarri puntual bat dute denboran, esate baterako, uhertasun altua sortzen duten ur-hornidura-sistema txikietako eurite gogorrak.

Azken urteetan, eta gai horri dagokionez, aipatzekoa da Tolosaldea-Goierriko eskualdean dagoen Iburriko Edateko Ura Tratatzeko Estazioa martxan jarri dela, eta horrek aurrerakuntza ekartzen du aurretik zeuden ur-hornidura-sistema txikietatik eratorri zitekeenarekin alderatuta. Aipatu beharrekoa da baita ere HCH-k (lindane-hondakinak) sortutako kutsadura. Horrek Loiolako urtegiari eragin zion 2008an eta, ondorioz, horren itxiera eta problematikaren segimendu-sistema zehatz baten inplementazioa ekarri zuen. Egun, konposatu horren kontzentrazioek urtegiaren egoera kimiko ona erakusten dute.




Laidako hondartzan piraguak.

Bainurako guneak

Bainu-uren egoera ona eta egonkorra da; gauzak horrela, azken urteotan ohikoa da bainurako guneen % 90k kalitate bikaina edo ona izatea.

BAINURAKO-UREN LAGINKETA-PUNTUETAKO KALITATEAREN BILAKAERA



4

ONDORIOAK ETA ETORKIZUNeko IKUSPUNTUAK

URAK BABESTEKO ETA HOBETZEKO ESPARRUA


Uraren Esparru Zuzentarauak aldaketa sakona ekarri du ur-plangintzako eta ura kudeatzeko oinarrietan. Hori garatzearen xedea da esparru bat ezartzea, ur kontinentalak, trantsizio urak, kostaldeko urak eta lurpeko urak babesteko, honako helburu hauekin:

- Hondatze gehigarria saihestea eta ur-ekosistemak zein mendeko lur-ekosistemak babestea zein hobetzea
- Uraren erabilera jasangarriak sustatzea
- Ur-ingurunea babestea eta hobetzea
- Lurpeko uren kutsadura murriztea
- Uholde eta lehorteen efektuak arintzea
- Hornitzeko egoera onean dagoen azaleko edo lurpeko ur nahikoa dagoela bermatzea

UEZk erronka baten ordezkaria da, ikuspuntu aldaketa egiteko ahaleginarena, alegia; helburu horiek betetzeko beharrezkoak diren jarduera egiteko. Aldaketa kontzeptual eta filosofikoak dira, juridikoez gain, ur-politika berriak izan behar duenaren inguruan, baliabide natural garrantzitsuenaren erabilera jasangarrian eta errespetagarrian oinarrituz.

Horren harira, UEZk egitura hidrauliko handien oinarrian sostengatutako "eskaintza"-ko ikuspegi tradizionalak aldatu ditu, "eskaera kudeatzeko", eta baliabidea eta haren kontinente-, estuario- eta kostalde-ekosistemak, "kontserbatzeko" eta "leheneratzeko" estrategiengatik.

Ura baliabide natural urria da, bizitzeko eta jarduera ekonomiko gehienak burutzeko ezinbestekoa, eta hori lortzeko, ez da ingurumena orokorrean, eta baliabidea bera (ura) zehazki, degradatu behar. Interesak bateratu behar dira eta elkarren osagarriak izan behar dira, eta hazkunde ekonomikoaren eta ingurunearen gaitasunen mugen arteko oreka ez da arriskuan jarri behar, epe ertainera eta luzera herritarren ongizatea ahalbidetze aldera.



UR-INGURUNEARI ERAGITEN DIOTEN PRESIO NAGUSIAK

Gaur egun Euskadiko ur-inguruneari eragiten dioten presio nagusiak uraren kutsadurari eta ekosistemen hondatze fisikoari dagozkie, baliabidearen kantitateari baino gehiago. Presio nagusiek hiri- eta industria-erabileran dute jatorria, zehazki:

- Kontaminazio puntualeko iturri gisa, hiriko eta industriako hondakin-urak isurtzeagatik.
- Ingurune urtarraren eta emari-erregimenaren aldaketa fisikoagatik.
- Uraren hiriko eta industriako erabilera egiteko ur-ibilguetatik gertuko okupazio masiboak ekarri du ibaietako eta itsasadarretako zati askok bideratzeak eta kanalizazioak izatea, uholdeen ondorioak murrizteko eginak.

Ibaien eta ibaiertzen ibilguaren naturaltasun-baldintzak funtsezkoak dira ibai-ekosistemak funtzionatzeko. Aldaketa morfologikoen ondorioz, ibaiertzeko ekosistemarekin eta gertuko lur-ekosistemekin konexioa galtzen da, animaliek babesleku gutxi dituzte eta ureko landareak egoera txarrean garatzen dira.

Zenbait erabilerarako ur asko erauzteagatik sortutako presio jakinen tokiko eraginak ukitutako zatietan arazo larriak sor ditzake, eta horiek ur-ekosistemen mantentze egokia eragotz dezakete. Kutsadura lausoarekin, espezie inbaditzaileen hedapenarekin edota espeziaren biodibertsitatearen murrizketarekin erlazionatutako presioak garrantzitsuak izan daitezke leku jakinetan.



UR-MASEN ETA GUNE BABESTUEN GAUR EGUNEKO EGOERA

Honako hau da Euskadiko ur-masen gaur egungo egoera (gaur eguneko presioen eta presio historikoen eta aplikatutako neurri zuzentzaileen eraginkortasunaren isla):

IBAIK

Gaur egun Euskadiko ibaien egoera laurogeita hamarreko hamarkadakoa baino askoz hobea da. Gaur egun ibaiek egoera kimiko ona dute, eta ur-inguruneari lotutako komunitate biologikoen egoera hobetu da, hondakin-urak arazteko eta saneatzeko maila hobegotik eratorri den baldintza fisiko-kimiko orokorren hobekuntzari esker.



ITSASADARRAK

Trantsizio urek ingurumen-helburuen lorpen-maila txikia dute oraintxe bertan, egoera ekologikoagatik edo egoera kimiko desegokiagatik. Berreskuratzea prozesu motela da, izan ere, bertan presioak biltzen dira, lurzorua hirigintzarako erabiltzeagatik, industria-jardueragatik eta portuko garapenagatik. Presio zuzen horri, gaur eguneko edo historikoa, kutsadura-karga handiko ibai-ekarpenak sortutako presioa gehitu behar zaio. Hala ere, zuzentzeko ekintza zuzenak eta arro isurtzailearen egoeraren hobekuntza batzuek iragarri behar du trantsizio urek pixkanaka hobetuko direla. Izan ere, azkeneko urteetan zenbait ur-masa egoera ekologiko ona eta neurrizkoaren artean daude.




KOSTALDEKO URAK

Kostaldeko uren ingurumen-helburuen lorpen-maila altua da. Jasaten dituzten presioek eta uren izaerak lortzen dute aldaketa-maila oso txikia mantentzea.



LURPEKO URAK

Lurpeko urek ez dute arazorik egoera kuantitatiboari dagokionez. Euren egoera kimikoa ona eta egonkorra da orokorrean, eta 2008tik 2014ra bitartean ur-masen ia % 90k egoera kimiko ona zuen.




GUNE BABESTUAK

Gune babestuei dagokionez, edateko ura ekoiztera zuzendutako uren kalitatea oso ona da, eta beraz, kalitate handiko edateko ura sortzeko ez dago arazo larrik. Bainurako guneek kalitate handiko estandarrak dituzte. Gune horiei eragiten dieten arazoak gutxi dira, eta konpontzeko bidean daude. Ondorioz, gune horietan helburuen lorpen-maila handiagoa lortzea aurreikus daiteke.



LAKUAK

Lakuek eta hezeguneez ingurumen-helburuen lorpen-maila txikia dute. Orokorrean, asaldu bat jasan ostean oreka berreskuratzeko gaitasun txikia dute. Espezie aloktonoen (arrainak, krustazeoak) presentziak eta zenbait nekazaritza- eta abere-jarduerak sor dezaketen presioak mugatu dute landare-komunitateen, naturaltasunaren eta komunitateen arteko orekaren garapena.



ETORKIZUNeko JARDUERA LERROAK

Beharrezkoa da guztion artean lana egiten jarraitzea, uraren kudeaketa finkatzeko. Ekintza horren helburuak dira ur-ingurunea eta haren ingurua babestea eta leheneratzea, baliabide hidrikoaren erabilera jasangarria egitea eta muturreko egoera hidrokologikoa saihestea.

Saneamendua eta kutsadura murriztea

Oraindik egiteko dauden saneamenduko eta arazketako oinarriko azpiegiturak egitea eta oraingoak hobetzea beharrezkoa da. Horrez gain, nukleo txikiagoetako saneamenduko arazoak landu behar dira eta jatorrian kutsaduraren murrizketa sustatu behar da. Euskadiko eremu jakinetan gaitasun tekniko eta ekonomiko nahikoa duten ur-zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeak bultzatzearen ondorioa da hori.

Ezaugarri morfologikoak

Gure arroetan epe luzera aintzat hartu beharreko beste alderdi bat da azaleko ur-masen eta horiekin lotutako ekosistemen ezaugarri morfologikoak era eraginkorrean babestu behar direla, eta leheneratu edo hobetu behar direla. Beharrezkotzat jotzen da ingurumena hobetzeko edo leheneratzeko ekintzak sustatzea, ur-masa bakoitzarentzako berariazko helburuak eta berreskuratzeko lehentasunak xedatzeko sakontzea, ingurumen-balioen edo uholde-arriskuaren arabera, eta Natura 2000 Sarerako onetsitako kudeaketa-tresnen atalean ezarritakoan sakontzea.

Uholde-arriskua murriztea

Beharbada, Euskadiko uraren kudeaketak duen arronkarik handiena uholde-arriskua murriztea da, bereziki arrisku handiagoa duten eremuetan. Horretarako, egiturazkoak ez diren neurriak (uholde-arrisku mailaren arabera erabilerak agintzea, hidrologia-informazioko eta alerta goiztiarreko sistemak, gizarte babeserako neurriak, etab.) eta egiturazko neurriak (hauek arriskua duten finkatutako hiriguneetan bakarrik) konbinatu behar dira.

Hiri-hornikuntza hobetzea

Beste alde batetik, hiri-hornikuntzako bermea hobetu behar da zenbait sistematan, eta beste batzuetan urrakortasuna murriztu behar da. Halaber, gehiegizko ustiapenetatik eratorritako erregimen hidrokologikoen aldaketak arindu behar dira. Alderdi guzti horiek arto ekologikoen erregimenen ezarpenarekin eta Lehorteari aurre egiteko Plan Berezien ikuskatzearekin bat eginez eta klima-aldaketaren azkeneko aurreikuspenak aintzat hartuz tratatu behar dira.

Segimendu-programak optimizatzea

Uraren kudeaketan nahasita dauden alderdi guztien segimendu-programek, eta bereziki, ur-masen egoeraren eta haren bilakaeraren xedapenak honako erronka berri hauek landu behar dituzte:

- Egoera ekologikoari dagokionez, adierazle biologikoak balioztatzeako sistema jakin batzuk perfektionatzea, bereziki, ibaietako, urtegiako eta lakuak arrainen multzoen kasuan.
- Egoera kimikoari dagokionez, azterketa-lanen maila moldatzea gero eta zorrotzagoak diren ingurumen-kalitateko neurriekin bat etorriz; eta sor daitezkeen kutsatzaileak etengabe aztertzea eta balioztatzea.
- Ur-masen eta ondorioz, mendeko lur-ekosistemen baldintza morfologikoen ebaluazioa hobetzea, neurri zuzentzaileak ezarri baino lehen.
- Interesdun agente guztien segimendu-programek sortutako informazioaren hedapen-prozedura hobetzea.

Uraren kudeaketa berriaren anbizio handiko helburuak lortzeko lan asko egin behar da oraindik, baina gero eta gertuago dago ur-ekosistema osasuntsuak eta gure gizartearen garapenarekin bateragarriak lortzeko xedea. Guztion ahaleginaren esku dago.